



Astekaria



elgoi



INAKI PEREZ ARMENDIA

**Matematikari baten
ipuinak**



ALBAITARITZA KLINIKA

ABERE TXIKIETAN ESPEZIALIZATUAK

San Roke, 26 (tren geltokiaren gainean) ELGOIBAR

Telefona 74 07 04 • LARRIALDIK (24 ordu) 908 87 39 40

ORDUTEGIA: Goizez 11-13, arratsaldetan 5-8 eta larunbatetan 11-13,30





BILDUMA BERRIA
bonardi '96
MULTIOPTICASen ESKLUSIBA

Asko gustatzeko.
Gutxi gastatzeko.



Hona hemen Multioplicasen Bonardi bilduma eskusiboa adin guztietarako, gustu guztietara egokitzen diren ereduekin. Multioplicasen bermearekin 450 saltokitan. Eta prezio ezin hobean. Gastatu gabe gustagarri izateko.

2.850
P T A

San Frantzisko, 21
20870 ELGOIBAR
Tel. 74 03 59
Faxa: 74 06 16



PAGOAGA S.A.
Iturgintza

- ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK
- IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN



GAS INSTALATZAILEA,
IG4 baimenarekin.
GAS NATURALA ETA PROPANOA

☎ **74 02 79 - 74 05 12**

San Antolin Kalea, 13 - ELGOIBAR

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Xabier

ansola, Pello Arrieta, Ina

Garagarza, Joseba

Gorosabel, Amaia

Gorostiza, Maite Iriondo,

Alberto Iriondo, KOKOE,

Edurne Korta, Imanol

Larrañaga, Javi León, Juan

Mari Mendizabal, Aitor

Zabaleta, Julen Zabaleta,

Deñe Zabalo.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-

1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Erromako zirkua

O hiturari jarraituz gero, Gabonak elkartasunerako egun aproposak izaten dira. Sentimendu txarrenak alde batera laga eta bihotza sekula baino bigunagoa eukitzen dugu egun gutxi batzuetan behintzat.

Gutziz kontrakoa gertatzen da, ostera, Gabonetako oporretan Udalak antolatzen duen Kuadrila arteko areto futboleko txapelketan. Lagun giroko denborapasa koartelik gabeko gerra bihurtzen da sarritan. Jokalariak haserre eta elkar jotzen, ikusleak gaizki-esaka eta biolentzia irrikan. Erromako zirkua Olaizaga kiroldegian.

Jakina da inori ez zaiola galtzea gustatzen. Ezta partxisean ere. Baina lagun arteko futbito partidua irabaztearren pertsonak gutxiesten eta haien aurka sekulakoak esaten hastea pasada bat iruditzen zait. Irabazi nahiak sortzen duen odol beroa ezin da, kirolean behintzat, aurkakoa txikitzeko aitzakia izan.

Ekipo batzuen arteko pikea aspalditik dator eta urtero Gabonetako txapelketan garbitzen dituzte euren arteko kontu ilunak. Askotan jokatu dut futboleant eta badakit tentsioaren

eraginez jokalariak burua gal dezakeela. Hala ere, urtero-urtero komeria tragikomiko bera antzezten dute zenbaitzuek, eta horrek justifikazio zaila dauka.


Eta ez uste bien bitartean ikusleak isilik daudenik. Asko pozik eta emozionatuta sentitzen dira halako espektakulua ikusiaz. Batzuek San Pedro auzoko taldekoei “españoles” deitzen eta besteek “hil ezazu”, “apurtu iezaiozu hanka” esaten.

Ahoa ireki baino lehenago bost kontatu eta gogoeta txiki bat egiteko eskatuko nieke horrelakoak oihukatzen dituztenei. Niri behintzat demaseko tristura ematen dit herrikideen artean horrenbesteko konponezina egoteak. Ez dut uste hau pike sanoa denik. Nahiago nuke horrela izango balitz.

Gabonetako txapelketak oso harrera ona dauka jendearen artean, baina batzuen harrotasun eta fantasmakeriek zeharo zatartzen dute berez interesgarria eta atsegina dena. Arbitroa izango banintz ez nuke dudarik izango: txartel gorri-gorria aterako nieke hala ibiltzen diren kirolari eta ikusleei. Txartel gorria eta datorren urtera arte.

Aitor Zabaleta

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





KEXAK

Kexa hau Gabonetako kua-drila arteko kirol txapelketan Polikiroldegian erretze-ari lotuta dago. Irakurlearen ustetan horrelako toki batean debekatuta egon beharko litzateke erretzea. Ez al da kontraesana toki itxi batean batzuk kirola egiten ari diren bitartean beste pila bat erretzen egotea? Halere, kexarekin batera txapelketako antolatzaile eta laguntzaileak txalotu nahi ditu, dena benetan ondo eta egoki antolatuta baitzegoen.



TXALOAK

Gizon batek honako txalo hau ekarri digu: *"txalo aundiak, Gabon egun ta gabon zahar eguerdiko mezetan, gure parrokioko organo ederrean, organo-jole gazteak jo zituzten soñu polit eta ederren gaitik. Oso gustora egon giñen. Txukun eta maixutasun aundiz, jo bai zuten. Zorionak beraz, Ane Zubia, Maite Etxeberria ta andereño Belen Zagarzaen'ri. Noiz urrengo aukera?"*

ESKUTITZAK

Azken hitza herriak

Joan zen hilaren 17an, azken 100 urtetan Euskadi gure Aberri bakarra dela uste dugunontzako askatasun erreferentzia den Gernikako arbolaren aurrean zera adierazi genuen:

1- 1979ko urriaren 25ean Euskal Herriaren "zati batek" onartutako Autonomi Estatutuak ez duela balio izan gure herriaren subiranotasuna eta Euskal Herriaren batasuna lortzeko.

2- Une horietan Estatuaren menpekotasunari irteera bat zela irudituz ziztaigun eta gure koldarkeria erreferendum-ean aitortu behar dugu ez baikenion gizarteari beste aukerarik eskaini, Estatutua ala ezer ere ez.

3- Estatutua lortu zenetik izan dira bai aurrerapausoak, baina Espainiak gure subiranotasunaren giltzak ondo gordetarik dauzka eta behar ditugun transferentziak gure azpiegitura nazionala eraikitzeko ukatzen dizkigu. Horrez gain, kupo garestia ordaindu behar diogu Estatuari.

4- Berriro gure abertzaletasuna aldarrikatzen dugu eta gure subiranotasuna lortzeko deia luzatzen diegu gure herriko sektore guztiei, (alderdi, sindikatu, talde sozial, arrantzaletan) azken finean gizarte guztiari, Autodeterminazioaren bidean jarraitzeko.

5- Ez dugu indarkeriarik nahi gure gizartean eta "pakea" eta "justizia" hitzek nagusi izan behar dutela jakinda, ondo ikusten dugu Euskadi Ta Askatasunak apirilaren 26an luzatutako Pake Proposamena, demokratikoa dela aitortu beharrean gaudelarik.

6- Abertzale guztiok batu, Autodeterminazioaren bidean gure indar guztiak batu behar ditugu euskal presoak Euskal Herrira ekar ditzaten.

7- Eta azkenik gure lema aldatuko dugu. Aurrerantzean "ABERRIA ALA HIL" izango da PNVk "ABERRIA POLTSIKOA BETETZIA", lehengo lema baztertzeko duenean.

GORA EUSKADI ASKATUTA
Kurutz Castrillejo

Zergatik horrenbeste isilpeko kontu?

Egunkariko iragarki bati esker, Elgoibartik Karakatera kanalizazio bat egiteko asmoa dagoela enteratu gara. Karakateko antenarekin loturiko isilpeko beste kontu baten adierazle bat gehiago.

Legez kanpokoa izateaz gain, lotsagarria da herritarroi obra publikoei buruzko informazioa ukatzea eta obrak hasi ostean enteratu beharra, herritarren desadostasunak deusestarako balio ez duenean.

Garbi dago, gobernuarentzat oso garrantzitsua dela telekomunikazioen garapena eta hauen erabilera kontrol sozialerako baina, mesedez, ez esan 1.000 m2 parke natural hiritartzea ona denik naturarentzat.

Ez zaitzete etorri guk telebista hobeto ikusteko dela esaten, ez baitugu eskatu, eta ondo ikusten da gainera. Jendeak eskatu duena Karakate parke natural bezala onartzea da eta superantena proiektu hau guztia ez gauzatzea. Baina honen adierazgarri diren 900 sinadurari ez diote kasurik egiten.

Aipatu bezala, eraikuntza hori ez da telebista hobeto ikusteko; herria hobeto kontrolatzeko eta telekomunikazio enpresak majo loditzeko baizik; bestela, ez lukete ingurua "Guarda jurado"z, ertzain patruilez, antidisturbioz, erretentzioz... zainduko.

KARAKATE PARKE NATURALA,
OSPA BI HANKAKO TXAKURRAK
KARAKATETIK

EUSKALNET S.A. KARAKATETIK
KANPORA!!!

KARAKATE BIZIRIK PLATAFORMA

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Modesto Mujikak** lagatakoa da. 1949an Lerungo futbol zelaian ateratakoa dela esan digu. Kuadrila arteko kirol txapelketak ez dira oraingo kontuak itxuraz. Orain estimazio handia izaten badute ere, orduan antolatzen zirenek ez zuten gutxiago.

Modestoren esanetan, Elgoibarren kuadrila arteko atletismo txapelketa antolatzen zen. Laupabost igandetan burutzen ei zen, goizez gehienetan. Frogak zeintzuk

izaten ziren? Luzera jauzia, pisu jaurtiketa, saltaka... Atletismoan normalean egin ohi direnak.

Urte hartan sei kuadrilak eman zuten izena eta txapelkunak TXINPARTA kuadrilakoak izan ziren.

Ikus dezagun zeintzuk osatzen zuten irabazleen kuadrila:

Tente, ezkerretik hasita: **Rafael Rodríguez, Rafael Areitio, Jesus Etura, Jesus M. Eizagirre, Luis Santolaia** eta **Juanito Canales**.

Makurtuta: **Manolo Donamaria, Vicente Elkoro** (entrenatzailea), **Ramon Ezenarro** eta **Lazaro Esnal**.

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel.74 28 74 - 74 05 70



EGONDO, s.a.l.

METALEZKO ERAIKUNTZAK
KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Olasope kalea 3. blokea ☎ 74 34 08-04 FAX 74 34 08

Artazo pelotaria



Aste honetako erreportaia nahiko bixia da. Eibarren bizi den Iñaki Larrañaga margolariak, Basarri bertsolariak Artazo pilotari elgoibartarrari egindako elkarrizketa eman zigun. Aipatu testua, Argiaren egutegian argitaratu 1936an, Basarrik idazten zuen "bordatxotik" atalean. Garai ez zen, ez, gauzarik arruntena iraz idatzitako zerbait irakur-Honako elkarrizketa honek, gai-

nera, badu berezitasunik hizkuntzari dagokionean. Arrazoi horiek batetik eta Elgoibarko sementa izan zenaren Justo Juaristi "Artazo"ren izena gogoraraztearren bestetik, aipatu elkarrizketako zenbait pasarte eskuratu nahi izan ditugu. Hasi eta dena jarraian, gustura baino gusturago irakurtzeko modukoa da. Azpiko taulan, testutik jaso ditugun hainbat hitzen esanahiak irakur daitezke. Horietako batzuk ez dira erreportaiaren azaltzen baina guztiak erakutsi nahi izan ditugu, asko eta asko egun erabiltzen ez diren hitzak baitira.

Lana egiteko borondatea ta asmo ona izatea bat da, gaia ere beardezu ordea papeltxoak beztuko badituzu. Nik berriz, artu dedan bezelakotxea edo antzekoa nai nizun. Euskaldun kiroltzale sonatu, ertilarari edo "artista" ospetsuen bat, edo... zerbait era ortakoa beñepein. Errian ez nizun inor begiz jorik eta komeri ori nunbait adierazia izango nintzan inolaz ere. Egun gutxi barruan, ni zearo lasaitu bear ninduan albistea iritxi bearrean zan. Ontan, ona nola artzen dedan, Elgoibarko "Ixaka" idazle ezagunaren eskutitz bat.

Neretzat eziñ da egokiagoko gai bat arkitu zuala-zion idazleak. Artazo pelotari pamatuarekin itzegin zuala, ta nere galdeerari erantzuteko gertu zegoala "Derizkiokanean etorri San Lorentzo"ra zion azkenik "Ixaka" idazleak.

¡Ura poza "Basarri"rena! Gose dan txoriak gari alea añaxe "extimatu" nuen nik ura. (...)

Aberatsen gixa berebillean igo gera "San Lorentzo"ra. ¡Denbora koxkorra baizan oñez ibiltzeko! Irun bat aneurkiñ edo "kilometro" egongo dira Elgoibartik Artazo bizi dan tokirra.

Etxe atarian antxe arkitu degu, beti bezela bere irripar alaiarekiñ. "Gure egun on'ari" erantzun gozoa damakio pelotari guren onek. ¡Apaltasunean ezpailioke inork aurrerik

artuko!

(...) Bere emazte Andresa, ama, ta gañontzekoak agurtu ditugu alaiki.

Bi poxpolin biotz-ikutzalle ere ba-ditu Artazo'k. Zer poza ta alaitasuna aita orrena, bere beatzez-orra nun dituzuten-esan digunean.

Aita-amak bezalaxe, bikañak ondorengoak ere. Nexka mutillak dituzte. Bati Sabin deritza, besteari Miren berriz. Euskotar era jatorrez datozkigu ikusten dezutenez. ¡Alako gurasoak behar!

Bee ta goi, bere etxaldea erakutsi ditu Artazo'k. ¡Ta... ura etxe puska!

Etxe-barren ura ikusi egiñ bear da. Ango upeltegi, ta ango botilleria...! Goia ez dago zer esanik. Etxe lauki aunditakoa baita.

Bera jotzen dago Artazo gizon atera duan pelota lekua. Ai, itzegiñ al baleza! Artazo'ri baño galdera geiago egingo nioke apika. (...)

Denborak aurrera zijoazen eta geure egitekoak lenbait-len bukatzea obe izango ote genduan edo pentsa genizun.

Gure Artazo aundia gertu zen naitarako. Goiko gela nagusira jaso arazi gaitu, ta ikusle guzien gogozko dan pelotari bikañarekin, bere begi zorrotzai esker, laxterketa gabe pelota denak eskuan izaten dituan pelotari jatorrarekin, irriparra españetan duala, ziur ta gogor jokatzen duan Artazorekiñ, askoren iritzira, gaur

eguneko atzealaririk onena-
rekiñ geure berriketalditxo
egitera goaz.

¿...?

- ¿Nik? Juaristi'tar
Justo, "Artazo" izenkeraz
ezagutzen naiz.

¿...?

- Amazazpi urterekiñ
jantzi nituen lenengoz
praka txuriak. Urte oiek
bitarte, nekazaritzan ari oi
nintzan len esan dizudan bezela.
Beste argitasun txiki bat ere eman
nai nizuke. Sei illabete mekanikotza
ikasteko asmotan igaro nitun;
artantxe jarraituaz, lanean ikasi ta
bizitzeko asmoak nitun baña pelotari
gogor jarraitzen niolarik, asko kon-
turatu ziran ortatik bizi nintekeala ta
partiduak ugaltzen zitzaizkidala iku-
siririk, lana alde bat utzi bearra izan
nuen. Amaika oldozkizun eta amaika
kezka izaten nuen orduantxe nere-
gan. ¿Lana utzi, opizioa baztatu, ta
oraiñ pelotari irteten ezpanaiz, zer
egitiñ bear dut?

Zenbat aldiz bururatu ote zitzaiz-
dan...

- (...) Marino lagun nuela, Mon-
dragonesa'ri joka bearra izan nuen
Eibar'ko Astelena'n. Zazpi tantokin
utzi genduan. Bolara gogorra nera-
bilkian orduan, pentsa zazu,
Atano'kin eskuz skukako, (mano a
mano) partidua jarri ziraten
Eibar'en. Nik, lauki edo kuadro bat
aurreragotik sakatzera beste alderik
etzan. Jendez bete zan plaza guzia,
ta dirua ogei bosti zegoan nere
aurka. Il edo bizi jo ta jo aritu giñan,
jeta orra ixtillua! 21 berdiñ jarri.
Ango zalaparta ta egon-eziña ikara-
garririkoa zan. Jende guzia aulki
gañetan zutik zalarik, 22'gna nik
egitea egokitu zan. Ogerleko edo
duro aundiak botatzen zituzten plaza
erdira. ¡Ura drixka ta ura eguna!
(...)

- Oraiñ dijoan hau Eibarren
zan: San Juan egun batez aiñ zuzen
ere Gastesi ta Mondragones jarri
zituzten "Zabala"n eta nere aurka.
Erriko pestak bete betean. Jakiña,
prontoia lepo ezurrerañi zegoan jen-



**Goian, Artazo bere emazte Andresa
Arriolarekin. Behean, Rubio
pilotariarekin 1976an San Lorenzo
baserrian ateratako argazkian.**

**Hona hemen testuan azaldutako
zenbait hitzen esanahia:**

- **Papeltxo beztu:** idatzi
- **Txolarte:** solasaldia
- **Bultzia:** treina
- **Ingi:** paper
- **Oldoztu:** pentsatu
- **Domiñez:** doluminez
- **Aneurkiñ:** kilometro
- **Drixka:** iskanbila
- **Derreor:** derrigorrez
- **Txalo burrunda gor-zorizkoa:** zarata handia
- **Imintzio:** gestu
- **Etzeukat atarramendu onik:** ez dut ezer onik aterako
- **Aitatu:** esan
- **Irun:** hiru
- **Guren:** on
- **Naitarako:** edozterarako
- **Aitu:** amaitu

dez. Amabost minutuko
jokaldia (partidua) izan
zan: tanto bakarrarekiñ
gelditu giñan emen. Parti-
dua bukatuta gero ere, puru
aundiak erreaz jendea sart-
zen ari zan artean asteko
zegoalako. Alakorik! ¡Ordu
laurdeneko jokaldia, gizo-
na! (...)

Tankera eman nion
berealaxe gauzari, Artazo'k
esan ala jartzen asten banaiz etzeukat
atarramendu onik. ¿Nun sartzeko
ordea?

Egitiñ daizkotan beste era bateko
galderatxo batzuk eta buka zadan
Jaungoikoaren izenean. (...)

- Aizu, sarri oldozten dedana da
orixe. Gaur egunean jarri diteken
partidurik ikusgarriena ta beteena
auxe: Atano irugarrena ta Urzelai,
Kirru ta Artao'n aurka. - Auxe, auxe
litzake gaurko arrigarriena.

Artazo'k esandakoa egin aundi-
takoa, irakurle. Alegia, zertzelada
guziak jartzen asten banaiz egutegi
osoa gutxitxo dedala. Nik ere ori
ikusi nuen berriketaldi artan, eta
aztunegi egitiñ gabe bukatzea gogora
zitzaidan. ¿Bai al dakizu azkenik zer
esan ziran?

- "Aizu 'Basarri', sei urtez
onutzko konturik granorik ez dizut
aitatu gero!

- Ba, ba, edozeñek burutzen du
zurekiñ. ¡Noizko aitu iturri orri!

Agur dagioga etxetar guziaz,
agur emazte, guraso, ta aurtxo kutu-
nai, agur bere jaiot-etxe ta bizitz
kabiari: berdiñ San Lorenzo zoraga-
rriari.

Eindako bazkari ederra nola
eskertu ez dakidala nabil.

Elgoibar'i ta Gipuzkoa osoari
ainbateko izena eman dion pelota-
riak lagundu digu erriraiño, ta
"Mirentxu" idazle aipatuaren osta-
tuan egonalditxo bat eginda, urrenar-
te esanaz uzten ditugu ango idazle ta
aberkideak, urrenarte esanaz, zorio-
neko Elgoibar!

<<BASARRI>>'k

Dirurik erosoena

Azken urteotan garapen teknologikoak eta bereziki, bitarteko informatikoen aurrerakada handiek gure eguneroko kobranta -eta ordainketa- harremanetan aldaketa izugarria gertatzea ahalbidetu dute. Ildo horretatik, banku-entitateena izango da seguraski baliabide hau gehien erabili duen sektorea. Horri esker bezeroari zerbitzu bizkorragoa, argiagoa eta batik bat, erosoago eskaini ahal zaio.

Garapen horren baitan punturik garrantzitsuenetarikoa, oinarri informatiko indartsurik gabe pentsaezina izango litzatekeena, ordainketa-sistemak eta txartelaren (Plastikozko Dirua ere deritzonaren) inguruko beste zerbitzu batzuk osatzen dute.

Gai hori oso aurreratua dago Estatu espainiarrean; aipatzekoa da dagoen kutzazainen sarea munduko zabalenerarikoa dela eta horietan burututako zerbitzuak banku-erakunde onenek eskainitakoekin pareka daitezkeela. Kutzazain-kopuru horri gure sukurtsal-sarea gehitu behar zaio, munduko gainerako herrialdeekin alderatuz gero, oso zabala dena; izan ere, bezeroak gehiegi mugitu beharrik izan ez dezan bere bizitokira hurbildu nahian, sukurtsal txiki ugari ditugu.

Txartelen gaira itzuliz, aipatzen genuenez, hainbatek "Plastikozko Dirua" esaten diote eta beste batzuek bilduma egiten dute eta zorroan hainbat eraman ez.

Egia esateko, duela bost urtetik hona, gizarte honetan bizi garen pertsonen ia zorro guztietan dago eta banku-sisteman sartzen ari direnean, hau da, gazteenen %100ak du. Zerbait argi dago: behin erabiltzen duenak ez du jada baztertzen, dirurik erosoena baita.

Horri esker, edozein entitateko kutzazainetan atera daiteke dirua eta mundu osoko milioika saltokiko erosketak ordain daitezke.

Garrantzitsuena zera: kalean zerbait erosteko premia sentitzen dugunean edo zerbait eskuratzeko asmoz ateratzen garenean, ez dagoela aldean dirurik eraman beharrik, eta beraz, lapurreta-arriskua ekiditen dugula.

Gainera, galtzen bada edo lapurtzen badigute, segituan salatuta maulaz erabiltzeagatiko edozein erantzukizun ebitatzen dugu. Eta edozein ezustekoren aurrean lagunik onena da, izan ere, behar dugun diru guztia, txartelaren mugaraino, ateratzeko aukera ematen digu.

Eta abantaila horiek guztiak

urtean 2.000 pta. ordainduta, hau da, egunean bost pta. Euskadiko Kutxan, gainera, txartelari telefonoa ere eranstean diogu, berari buruzko edozein kontsulta egitea edo edozein larritasun konpontzea ahalbidetzen diguna. Bestalde, izaera solidarioko Visa ere eskura dezakezu, Visa Medicus Mundi, alegia.

Horrekin Hirugarren Munduari laguntzen diozu, erakunde horrek eskaintzen duen laguntza humanitarioaren bidez, behar handienak dituzten herrialdeetan ospitaleak eraiki, garbitasuna hobetu etab. egiteko. Burutzen duzun ordainketa bakoitzeko, Euskadiko Kutxak zure erosketaren hainbateko bat elkarte humanitario horri eskaintzen dio.



RICARDO ASTIGARRAGA
EUSKADIKO KUTXAKO ZUZENDARIA

Garajeak **salgai** San Roke 12-14an



**INFORMAZIOA
ETA SALMENTA:**

JUARISTI
bulegoa
Ubitarte 2, behea
Tel. 74 13 33



M. ANGELES ZABALA
40 urte, etxeoandrea

Bai, bi dauzkat. Normalian txartelakin dirua ateratzen dot. Oso praktikuak dia baina badaukate arrisku bat, zenbat gastatzen dan gutxio kontrolatzen dala.



INES UNZILLA
49 urte, dendaria

Gutxi, bakarra dakat. Donostixara juten banaiz igual erabiltzen dot baina Elgoibarren ez. Badakizu, batzuetan aberixauta eoten da eta; dirua komoduaua da.



NICOLAS ETXABE
44 urte, langabetua

Gehixegi. Visa zurixa dakat, Caja Laboralekua eta dana eitxen dot berarekin. Bankura jun biharrian nahi doten dirua atera, autopistia pagau... dana.



INAKI BENGOETXEA
49 urte, mekanikoa

Hiru tarjeta dakadaz. Dirua ateratzeko erabiltzen dot, erreztasuna ematen dau, kutxan zain egon biharrian. Erosketak eitxeko ez dot erabiltzen.



EMILIA HERRERO
49 urte, etxeoandrea

Kartilarekin ateratzen dut dirua txartela eduki arren. Txartela gutxiago erabiltzen dut eta dendetan ere diruz ordaintzea nahiago izaten dut.



INIGO ANSOLA
31 urte, langabetua

Dirua ateratzeko erabiltzen dut. Pare bat tarjeta dauzkat baina normalean dirua eramaten dut boltsikoan. Tarjetek apuroetatik ateratzen zaituzte.

LEKU-EDER ETXEBIZITZAK

**ETXEAK,
GARAJEAK ETA
LOKAL KOMERTZIALAK
SALGAI**

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:
Ubitarte 2 behea. Tel 74 13 33
ELGOIBAR (GIPUZKOA)



**PREZIO OSO
INTERESGARRIAK**

■ Santa Ageda bezperan, baserriz baserri

Elgoibarko Izarrak antolatutako Santa Eskea baserriz baserri ibiliko da otsailaren 4an. Egun osoz, goizean goiz hasita, herriko auzo guztietako baserriak koplaturiko dituzte. Ahalik eta baserri gehien pasatzeko asmoarekin, hiru talde osatzeko asmo dute antolatzaileek: nagusien bi talde eta hurrek osaturiko bat. Bazkaria eta afaria dohainik izango dira animatzen direnentzat. Koruetan parte hartu nahi duenak hilaren 31a baino lehen Elgoibarko Izarrako 74 16 26 zenbakira deitu beharko du.


■ Shanty Oriaren erakusketa Azpeitin

Shanty Oriak 28 margo eta brontzeko pieza txikiak erakusgai izango ditu Azpeitiko Antxieta Etxean hilaren 26ra arte. Margoen artean Elgoibarren ateratako txoko ugari identifikatu daitezke, Belokiko presa, besteak beste. Bisita orduak astelehenetik ostiralera bitartean arratsaldeko 6etatik 8ak arte.

■ Astelehenean hasiko da gurasoentzako ikastaroa

Elgoibarko Herri Institutuko Guraso Elkarteak, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Udalaren laguntzaz antolatu duen "Heziz Hezi" izeneko ikastaroa astelehenean, hilak 22, hasiko da. Arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara bitartean izango dira klaseak Lanbide Institutuko aretoan. Euskal Herriko Unibertsitateko psikologia eta pedagogia irakasleak diren Isabel Bartan eta Juan Maria Magantok emango dituzte klaseak. Hamar astelehen iraungo ditu ikastaroak honako egun hauetan banatuak: urtarrilaren 22a eta 29a, otsailaren 5a, 12a, 19a eta 26a, martxoaren 4a, 11a eta 25a eta apirilaren 1a. Interesaturik egonez gero, izena emateko aukera dago oraindik 74 44 80 edo 74 44 85 zenbakietara deituta.

SAN ANTON JAIAK



Filatelia Elkarteak antolatutako zigilu erakusketa hilaren 21era arte egongo da ikusgai Kultur Etxeko erakusgelan. 39 bitrinak osatzen dute erakusketa, La Coruña, Huelva, Donostia, Bilbo, Urretxu eta Basauriko kolezionisten bildumei dagozkienak. Munduko herrialde ezberdinetako zigiluak ikus daitezke, edozein gairi buruzkoak, tartean historiaurreari eta arkeologiari buruzko zenbait bilduma daudelarik. San Anton jaien bueltan Filateliakoek urtero egiten duten erakusketaren aurtengo gaia Elgoibarren sorreraren 650. urteurrena da. Gai honekin mataseilu berezia eskuragai izan zen joan den asteburuan.



■ Imanol kantariak eta Zigor Gazkez

elgoibartarrak kontzertua eskaini zuten San Anton bezperan, hilak 16. Imanolen ahotsaren epeltasun eta sendotasunak eta Zigorren estilo pertsonalak ikusle gozagarriak ezberdina bildu zituzten Herriko Antzokian. Udalak antolatutako kontzertua izan zen, San Anton jaien egitarauaren barruan zegoena.

Bi tona zabor gutxiago jaso zituen Mankomunitateak iaz

Deba Beheko Mankomunitateak 1995. urtean bilketa selektiboaren bidez jasotako beira eta paper kopuruen berri eman du. Beirari dagokionez, 607 tona jaso ziren 95ean, biztanle bakoitzeko 7.647 kilo. Papera eta kartoia, berriz, 1.294 tona jaso ziren, 16,36 kilo biztanleko. 1995ean beira kontenedore kopurua gehitu egin zen eta papera biltzeari ekin zitzaion. Baina, zabor kopurua gutxitu egin da, 1994an 22 tona zabor bildu baitziren eta 1995an, berriz, 20,5 tona. 96rako 20 tona zabor baino gehiago ez jasotzea espero du Mankomunitateak.

Bestetik, Deba Beheko Mankomunitateak Ingurugiro Aholkularitza Zerbitzua sortu zuen enpresei zuzendua. Mankomunitateak zerbitzuari buruzko inkesta egin du eta emaitzak kaleratu. Horrela, zerbitzuaren premia

azpimarratzen dute emaitzek. Ingurugiro araudia ezagutzen lagundu izan duen zerbitzua da enpresen %95aren iritzi. Era berean, %75eko kasuetan lekuan lekuko arazoak konpontzen lagundu du, taladrina eta hondakin toxikoen tratamenduari buruzko arazoak, esaterako.



Udal Kirol Patronatuaren logotipo lehiaketara aurkeztutako diseinu guztien artetik, Maite Rementeriarena aukeratu zuen epaimahaiak (Gotzon Arrieta eta Ana Santolaia kirol eta kultur zinegotzien artean, Maite Rementeriak eskuartean duena). Kirol Zerbitzuak antolatutako lehiaketan 13 diseinu ezberdin aurkeztu ziren eta logotipo irabazlea Udal Kirol Patronatuaren iharduera guztietan erabiliko da. Patronatuaren logotipoa ezezik, Elgoibarko 650. urteurreneko logotipoa ere Maite Rementeriak eginikoa da.

■ Helduen hezkuntza

Helduen hezkuntzarako ikasturtearen bigarren lauhilabeteari dagokion matrikula epea irekita dago jadanik. Hilaren 31ra arte Eskola Graduatu titulua eskuratu nahi dutenek izena emateko aukera izango dute Pedro Muguruzako ikastetxean 74 08 80 zenbakira deituta.

■ Zazpikiren bilera

Larunbatean, hilak 20, Zazpiki irriatiak ohiko bilera egingo du irriatiaren lokalean. Goizeko 11,30etarako deia luzatu dute Zazpikikoek, hortaz, irratizale guztiei bilerara ager daitezen dei egiten zaie.

■ Hauteskunde errolda

Hauteskunde erroldaren zerrendak Udaletxean eskuragai daude interesatuek ikusi eta edozein erreklamazio egiteko. Hauteskundeetako 5/85 lege organikoaren 39. artikulua arabera hilaren 22ra arteko epea dago.

■ Alkoholaren prezioak igo dituzte tabernek

Joan den astelehenean Elgoibarko tabernariak bilera egin zuten urte hasiera guztietan izaten den prezioen igoeraren zenbatekoa ezartzeko. San Anton egunetik aurrera zenbait edari alkoholduen prezioak garestiagoak dira. Txilitoaren prezioa 35 pta.tik 40ra igotzea erabaki zuten eta ardo berezia ere bost pta. igo da, 75tik 80ra hain zuzen. Zuritoaren prezio berria 85 pta.tan ezarri dute, lehen baino bost pta. gehiago. Gehien garestitu den edaria, berriz, koñak-a izan da, bost duro hain zuzen. Koñak arrunta kopa batek 175 pta. beharrean 200 pta. kostako ditu aurrerantzean eta koñak bereziak 225 beharrean 250 pta.

Eduardo Iraegi:

“Metro t'erdiko itsasontzi bat daukat egina”

Eibartarra den arren, 1941ean, 15 urte zituela, Elgoibarrera etorri zen bere familiarekin, gerraren ondorioz Eibarko hiria suntsitua geratu baitzen. Berak esan digunez, Elgoibarren “katiatuta” gelditu zen, baina “oso gustora”. Ogibidez armagilea da.

Gaur egun jubilatua dago. Lanbideak eskatuta asko bidaiatu du; Filipinas, Arabia, Amerika... Bere benetako zaletasuna, ordea, itsasontzien maketak egitea da. Honen bitartez, Donostiako Akuarium-eko bokal lanetan ibili da hamabi urtez.

- Zein da zure lana?

- Jubilatua naio, baina Donostiako Akuarium-eko itsasontzien maketen bokala naiz. Arrainena eta itsasontziena batera dao eta erabaki asko batera hartzen ditugun arren, independientiak dia. Nere lana, taldia eta zuzendaritza batzarra koordinatzea da.

- Nola sartu zinen?

- Oin dala 15 edo 16 bat urte. Lehenengotan arrainekin eitxen zan biharra. Gerora untzixen museo txiki bat formau zan eta guk formau gendun talde bat hura zaindu eta afizua lantzeko. Indarra hartzen jun zan eta neri propuestia ein ziaten sozio moduan sartzeko. Baietz esan naban eta gaur arte.

- Nondik datorkizu afizioa?

- Beti gustau izan jataz itsasontzixak. Euskaldunori itsasoak tira egin izan dau beti. Barnekaldekuak izan arren, itsas-baztarrian beti ibili gera uda partian. Untzixak, aeroplanuak etab. umetatik euki doten afizina izan da. Eskulanak



“Afizinua ezin da hartu obligazio moduan, nahi dozunian eta nahi dozulako egin bihar da”

asko gustatzen jatazen, eta apurka-apurka igarri barik honaxe ailegau nitzan.

- Zenbat itsasontzi egin dituzu?

- Hamar edo hamabi bat. Baina etxian bi bakarrik daukat. San Juan itsasontzia eitxia adibidez, 13 urte kostau jat. Oin nauan moduan egon izan banintz, libre, pare bat urtian despatxauko naban. Dana dala, itsasontzi honek detaile asko ditu, burdinezko 70 kainoi, lehoi inperial bat... 1,5x1,5 metrotako neurrixa daka, beraz, imajinaizu. Eta bestiak, txikixauak, erregalau ein ditzut.

- Zer eman dizu zaleta-

sun honek?

- Bentaja haundixa izan da neretzat afizino hau izatia. Askotan, taillerko preokupazinuekin etxera ailegatzerakuan ahaztu eitxen nitxuan barkuak itxen hasten nitzian. Afizinua ezin da hartu obligazio moduan, ahal dozunian eta nahi dozulako egin bihar da. Ihesbide bat eta entrenitzeko modu bat izan leike, baina beti ere asko gustau bihar jatzu.

- Nola eta noiz sortu zen akuarium-a?

- Mende hasieran montau zan. Sasoi hartan, arrantza munduari lotuta zauan. Baina Monacoko

akuaria jarri zian, harek eman zien enbidixia Donostikueri eta euren kontura montau eben “El Palacio del mar”. Gero, Diputaziuak nahi izan zeban konpletatzia eta harek emandako modeluekin egin eben hasieria eta orain bixak museua eta akuaria, leku berian dao. Hala ere,

akuariau entidade pribaua izan da beti, soziuena baita.

-Aurrera begira, Akuariorako proiekturik?

- Hor daukagu konpromiso bat Oceanic konpainiarekin. Hau mundu guztian akurium-ak montatzen diharduan konpainia australianua da. Anteproiektua egin dosku eta 700 milioikua da. Ikusiko dogu nundik ateratzen dan dirua. Proiektua da paseo berrixa ixa 200 metroko zati baten hustutzia eta kristal moduko tubo bat ipini jendiak bertatik pasatzeko aukera izateko. Inguruan, buelta guztian ura eta arrainak ikusiko liake.

MAITE IRIONDO

ZcjtctcmBERRI

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 19. GEHIGARRIA



Mari Karmen Bizkarrondo, ama eta Maite eta Jesus Iriando Bizkarrondo seme-alabak dira urtebeterako epean Jubilatuen Etxeko tabernaren ardura izango dutenak. Goizeko 9,30etan hasi eta gaueko 9,30ak arte, urteko egun guztietan egiten dute lan, txandaka, turnoak eginez noski, nahiz eta, esan digutenez, amari tokatzen zaion lan

gehien egitea. Bazkariak ere ematen dituzte baina gehienbat, egunean zehar bertara hurreratzen diren jubilatuei eskaintzen diete zerbitzua: txikitoak, kafeak, pintxoak eta abar. Gainera, beste tabernekin konparatuz prezio erdiak omen dituzte. Nolanahi ere, bertara hurbiltzen direnek, karta jokoa, txatxara edo irakurketa arindu asmoz, badute non zer harturik. Asko ibili gabe, gainera.

JESUS MUGURUZA ETA JOSE ODRIA

"Kazarako, txakur ona eta andria hobia bihar dia"

Jose Odriak 83 urte ditu eta Jesus Muguruzak 70. Ez bata ez eta besteak ere, ez dute inondik inora duten adina erakusten aurpegira begiratuta. Ehizan ibilitakoak dira biak makina bat urtetan eta orain gutxi jubilatu direnez, gure artean egon nahi izan dute beraien oroitzapenak ezagutarazteko asmoz. "Lehengua goguan", titular eta guzti etorri zaizkigu biak. Hitz jario aparta dute eta kontu ugariz, tarte ederra pasatu dugu. Ehiza maite dutela behintzat argi geratu da eta Jesusek, agur gisa, pare bat bertso ere botatu dizkigu.

- Gaztetan hasi al zineten ehizan?

- 15/17 urte ingurukin, bakoitza bere aldetik. Afiziua sortu eitzen da eta guri ere holaxe pasau jakun. Gero, oin dala 40 bat urte bixak elkartu eta batera hasi ginan. Gainera, Jesus biazantia zan eta kotxia zakan. Bentaja haundixa zan kotxia eukitzia. Bere 600 zaharrian juten ginan batera eta bestera, oilagorretara.

- Meza entzun eta gero, ez?

- Bai. Hemen parrokoa zauan, Azkoitxikua, Don Jose, eta harek nahi zaban orduan mezia ematen zaban kazara juteko mezia ikusitxa. Guk goizeko seiretan mezia ikusi eta kazara juten ginan. Oinez Madarixaraino, hortik Lastur aldetik Mendaroraino eta handik Elgoibarrera, oinez! Aber zeinek eitzen daban hori oin! Gero autuan jabe ein eta beste paraje batzuetara juten hasi ginan.

- Lehenengo tiro hotzak ez al zintuzteten inpresionatu?

- Gerra denborako umiak gera eta tiro asko entzundakuak, guri tiruak efekto gitxi itxen zigun.

- Askok ehizatzen al zenuen?

- Gu inda gaude, bata 50 eta bestia 61 urtekin, hiru urte ilaran, 82, 86 eta 89 oilagor. Jendiak jardutzen zaban ehizatarien artian komentatzen guk nunbaixen erositxa

ekartzen genitxula. Harrezkero, guk laga ezker, mordua jun dia horra baina guk erosten genduzen dendarik ez dau inork bilau!

- Hain onak al zineten, ba?

- Garrantzirik haundixena txakurak daka. Gero, parajia estudixatzia dao, ezautzia. Eskopetiak ere badaka demaseko garrantzia, kartutxuak... Sekreto asko!

- Bista ona ere beharko da, ez?

- Bai, bai. Futbolistiak ere porterixara botata, lehen edo beranduo sartuko dau gola. Ondo apuntau bihar da jotzeko.

- Ehizatu eta lapikora?

- Ez, guk saldu eitzen gendun. Hasi ginanian entzun bihar izan gendun baina azkenerako danak hasi zian.

- Iaz jubilatu zineten ehizatik.



- Bai, gaztiak pasatzen jakuzen aurretik eta kazarixak atzian geratuta jai dauka. Hala ere, Josek 81 urtekin hil zaban azkenengo oilagorra. Hori ez dau edozeinek eitzen, eh!

- Emazteak ez al ziren zuekin josten?

- Ez, baina andra onak tokau jakuzen guri. Ehiztarixari barkatzeko andriak ona bihar dau, eh! Gaur egunian ez dao holakorik, senarra larunbat gabian etxetik urten eta domeka eguerdira arte etxetik jutia ametitxuko dabanik.

- Bertsoan ere badakizu Jesus. Bota pare bat.

Ehiza baino ederrago ezer ez munduan eskopeta hartuta txakurra albuana sasoia galanta ta noranaira juan horregatiok orain lengua goguan.

Mendian egon arren erbi edo eper Tiruak erten leike pultsuetan oker besteko biziorik ez baduzu ezer zure bizimodua bukauko da laster.



Zahar sentitzen al zara?

Nahi eta nahi ez, denborak aurrera egiten du bere ibilbidea beti. Eta, konturatzen garenerako 50, 60 eta 70 urte ditugula esnatzen gara. Halere, gaur egun jendearen bizi kalitatea askoz hobea da orain 20 urte baino. Eta, kalitatea ezezik, pertsonak gero eta gazteago sentitzen dira urteetan

aurrera eginda ere. Kalera atera gara jendeak honen inguruan duen iritzia jasotzeko asmoz. Eta, ikusi dugunaren arabera, badirudi gaur egun zaharrak izendatzen ditugun asko, oraindik ere gazte sentitzen direla. Are gehiago, batzuk sekula zahar izango ez direla ere esan digute.



Manuel Horcas
57 urte

Gauza natural bat da, poliki-poliki datorrena eta onartu egin behar dena. Nork bere burua gobernatu ezin duenean, orduan bai zaharra, orduan bai izango dela gaizki sentitzea. Ni neu ez naiz zaharra sentitzen.



Santos Sánchez
73 urte

Edade kontua da hori, 70 urtetik gora edo pertsona bat zaharra dela esan daiteke. Ni hala ere, ez naiz zaharra sentitzen. Ibili ezinda zaudenean eta horrelako ezintasunak dituzenean ezberdina da. Hori bai, zahartzaroan denbora libre mordo dago nahi duzuna egiteko, bidaiatu, pasiatu, irakurri...

Antonina Vizoso
53 urte



Ni ez naiz zaharra sentitzen, zimurrek ez dute ezer esaterik nahi. Norbera sentitu behar da horrela, izakeran dago. Beldurra ematen dit neure burua ezin zaindu izateak, besteek ni zaindu behar izateak eta orain daukadan askatasuna galtzeak. Aita dut horrela.

Juan Mella
71 urte



Osasunak huts egiten duenean esan daiteke pertsona bat zaharra dela. Ezin naiz kexatu, beti dago kuitaren bat baina... Urteak igarotzen dira baina ezin da ezer egin, hala ere, orain denbora ez doa lanean nengoen garaian bezain bizkor. Txarrena da ingurukoak hiltzen ikusten dituzula.



Nieves Unanue
67 urte

Badakitx zaharra naizela baina ez naiz hola sentitzen. Bizitzeko gogua dakat, etxeko lanak eitzen ditzut, umia zaindu... Osasunak failatu arren, infarto zerebrala euki naban eta diabetisa dakat baina zenbat eta osasun eskasua izan, bizitzeko gogo gehixo.



Gregoria Gorostidi
82 urte

Zahar sekula ez, gazte sentitzen naiz oindiok! Bizi leike bizitza guztian gazte sentiduz. Musikiak, jende gaztiak ikustiak ematen dia neri indarra. Osasunipe eon naiz hilabetian, hiltziar, baina ointxe sekulako jaikixa dakat. Ointxe bertan hasiko nitzan dantzan baina...

Diabetes-a

Elikadura orekatu batek gorputzak behar dituen bitamina, proteina, koipe eta azukrea ematen dizkigu. Azukreek beroa, indarra eta energia ematen digute baina azukre hori erabiltzeko pankreetan sortzen den likido bat beharrezkoa dugu, insulina.

Lesioren baten ondorioz pankreak insulinarik sortzen ez duenean edo arrazoi ezberdinengatik sortzen den insulina ez duenean bere helburua betetzen, azukrea ez da kontsumitzen eta bere kopurua odolean gehitu egiten da Diabetes Mellitus deitzen dena sortuz.

Diabetes mota bi daude:

a) Insulinaren menpeko diabetes-a: jende gaztearengan ematen da batez ere eta tratatzeko beharrezkoa da insulina, gorputzak ez baitu sortzen.

b) Insulinaren menpekoea ez den diabetes-a: helduen eta obesoen artean arruntagoa den diabetes mota. Kasu honetan insulina kopurua normala, altua edo bajua izan daiteke. Dieta eta pisuaren kontrola beharrezkoak dira eta noizean behin pilulak hartu behar izaten dira azukre kopuru altua kontrolatzeko.

Diabetes-ak ez ditu sintoma ikusgarriak. Jendea medikuarengana joaten da pisua galtzean, egarri eta gose exageratua, txisa egiteko gogo etengabea, hanketan kalanbreak dituenen, azkura, nekea... Horrelako eta antzeko kasuak ematen direnean, odol analisi baten bidez ematen da diabetes-aren diagnosis.



ROBERTO BALANZATEGI
MEDIKUA

Esan bezala, diabetes-ak ez du sukarrak sortzen ez eta minik ere. Horregatik askok ez diote garrantzi handirik ematen eta tratamendua jarraitzeko orduan ez dira oso motibatuak egoten.

Halere, diabetes-a ez bada kontrolatzen, ultzera begietan, giltzurrunetan, odol hodian eta beste zenbait organutan arazoak sor ditzake. Kasurik txarrean *cetoacidosis* deitzen dena eman daiteke hiltzeko arriskua egonik. Hau guztia gerta ez dadin, gaixoak medikuak agindutako guztia bete behar du dieta, pilula eta insulinari dagokionean.

Hau guztiaz gain beste hainbat gauza ere izan behar dira kontuan. Esate baterako, ezin da azukrea daraman ezer hartu, koipea zaindu beharra dago, pisua kontrolatu, ariketa egin, tabakoa eta alkohola ekidin ahal den neurrian, hortzak zaindu, azala, zauriak, hatzazkalak, oinak, okulista urtean behin bisitatu behar da... Eta, medikuak esandakotan, beharrezko analisiak egin.

Laburtuz, diabetes-a duen pertsona batek tratamendua behar bezala jarraitzen badu eta aurrez esandako aholkuak betetzen baditu, gaisotasun hori ez duen beste edozeinek bezalako bizitza izan dezake, erabat normala.



EDURNE
ELORZA

Txanpiz betetako piperrak

OSAGARRIAK:

- Piperrak
- Txanpiak
- Kipula
- Irina
- Olio, gatza eta berakatza.

PRESTAKETA: txanpixak, kipulia eta berakatza txiki-txiki ein eta zartain batera bota olixotara. Harek eitxen dianian kutxarilla bete irin bota eta esne piskat batzeko ze, bestela, solte geratzen dia. Gero, pieprak hartu eta kutxarilla batekin bete. Aparte kazuela baten kipula bat, pare bat berakatzatal eta pipar botetik sobratu diazen piperrak sartu. Ur piskat eta gatza ere bota bihar jakoz. Dana pasatu bihar da fin-fin geratzeko eta saltsia kazuelan pil-pil laga bihar da 20 minutuz.

Mari Carmen Villanueva

La Boutique del Pan-ekoa



- **Ogi arrunta ala integrala?** ▶ Neri biak gustatzen zaizkit ogi asko jaten baitut, baina arrunta integrala baino gehiago jaten dut.
- **Ogi mota bat?** ▶ Egunean egiten dena, oso ondo kontserbatzen baita.
- **Ogitarteko bat?** ▶ Txorizoarena.
- **Jatorduak ogiarekin ala ogirik gabe?**
 - ▶ Denak ogiarekin.
- **Zenbat ogi barra jaten dira egunero zure etxean?**
 - ▶ Itsaskia jaten badugu bat ere ez, baina noizbehinka jaten dugunez, bi barra edo ogi biribil erdi handi bat.
- **Zer egiten duzue saltzen ez diren ogiekin?**
 - ▶ Baserritarrei edo animaliak dituztenei saltzen dizkiegu.
- **Jatorduetan saltsa ogiarekin batzen duzu?**
 - ▶ Bai, komeni ez zaidan arren.
- **Ogi mamitsua ala mamirik gabekoa?** ▶ Berdin zait.
- **Zer dela eta beste okindegi bat kalean?** ▶ Negozioa handitu nahi genuelako eta bide batez irabaziak ere gehitzeko.
- **Kalean ala hemen, non saltzen da gehiago?** ▶ Kalean.
- **Ogi gogorra bezain gogorra zara?** ▶ Ez, ni oso biguna naiz. Oso bihotz ona daukat eta ez naiz inoiz inorekin haserretzen.
- **Nor utziko zenuke ogia eta urarekin bakarrik?**
 - ▶ Inor, nik mundu guztiak jan dezan nahi dut.
- **Dietarik jarraitzen duzu?**
 - ▶ Ez, beharrezkoa dudan arren, gainera ezinezkoa egiten zait jarraitzea.
- **Nola ospatzen dituzu San Antonak?** ▶ Ez badugu lanik egiten atsedean hartzen dut eta kalean buelta bat ematen.
- **Usain bat?** ▶ Larrosarena, oso gogokoak baititut larrosak.
- **Egunkaria ala telebista?** ▶ Biak, egunkaria egunero irakurtzen dut eta telebista gauetan, denbora daukadanean ikusten dut.
- **Krisi garaian ogi gehiago jaten da?** ▶ Piskatxo bat gehiago uste dut.
- **Ez al dago okindegi asko Elgoibarren?** ▶ Bai, baina denok bizi behar dugula uste dut. Gainera pertsona bat langabezia badago oso ondo deritzot okindegi bat irekitzeari, beharrean badaude...

MAITE IRIONDO

SAN ANTON JAIK

DOINUA:

Ari naizela, ari naizela

Herritarrentzat gure San Anton sonatua zen lehenago baina ez pentsa orandik ere ahaztu denik zeharo nahiz ta jendeak udako jaiak izaten ditu nahiago lasaitasuna nahi duanantzat beste egun bat gehiago

Garai batean bixigua zen San Antonetako moda gure artetik alde egin du eta ez dakigu nora freskorik ez da inon ikusten eta izoztua gora merkealdian bildotsa dago ta bera jan beharko da.



ZIARDA



OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

Aparkaleku berriak egokitu nahi ditu Udalak herrian

Elgoibarko Udalak Udaltzaingoaren figura indartu nahi du, batez ere herriarentzako zerbitzuari dagokionean. Besteak beste, gaueko turnoak betetzeko asmoz, bi udaltzain jarri nahi dira. Autoen aparkalekuen arazoari ere aurre egin nahi zaio horretarako gune berriak egokituz.

Gaur egun gaueko turnoetan udaltzain bakarra egoten omen da guardia egiten eta bera Udaltzaingoan bertan egoten da, bertara irits daitezkeen deiak jasotzeko helburuarekin. Nahikoa ez dela eta, aurrerantzean, guardia bi pertsonak, bi udaltzainek egitea nahi da. Horrela bietako bat udaltzaingoan dagoen bitartean,



■ ■ Herri barruan aparkalekuak lepo egoten dira.

bestea kotxez ibiliko da herriko kaleetan eta auzoetan.

Bestalde, hasiak dira, dagoeneko, gauean tabernen itxiera eta musika bolumena kontrolatzen. Legearen arabera, tabernekin ordutegia bete beharra dute, astegunetan eta asteburuetan zein jaiegunetan ezberdina dena. Legea betearazi

nahi da eta auzokideen onerako neurriak hartu asmoz, hasiak dira larunbat gauean pare bat udaltzain herriko kaleetan ikusten eta tabernei ixteko ordua gogorarazten.

Aparkalekuak

Jakinak dira herritarren artean aparkaleku faltak sortzen dituen kexak. Hori dela eta, asesoria baten laguntzaz, trafiko aldetik puntu gatazkatsuenak zeintzuk diren ikeritu eta irtenbide bat eman nahi zaie. Alde batetik, grua jarri nahi da, horretarako depositoa San Rokeko lokal batean kokatuko delarik. Bestetik, hainbat gune aparkalekuak egiteko egokitu nahi dira, besteak beste, Ikastola ondoan dauden Alkortaren lurrak, Arriola ingurua eta trenbide atzeko ehundegi zaharra. Era berean, Urasandiko fundizioa erosi zuen Udalak eta hor sarrera berria egin nahi da Urasandi auzora joateko Diputazioaren diru-laguntzaz.



■ ■ Gaueko turnoetan bi udaltzain jarri nahi ditu Udalak.

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak	Enbutidoak
Baserriko ogia	Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecnarro, 1 ☎ 74 33 92

JATETXEA ETA TABERNA

P. Muguruza 8. ☎ 74 08 21

Maria Urizar

ileapaindegi mixtoa

Errosario 9-1ezk.
☎ 74 44 89 ELGOIBAR

Zabala dorretxea (I)

- Arriaga edo San Antolin auzoan, muino baten tontorrean aurkitzen da. Defentsarako ezaugarriak ditu.
- San Antolineko eliza eta ospitaleak, Karkizano etxeak eta dorretxeak (Yuso eta Suso: behekoa eta goikoa) beren olekin eta Apatriz (Apraiz) "Olatxok", multzo historiko-artistiko garrantzitsua osatu zuten Zabala dorretxearekin batera.
- Oinplano ia karratua du. Garai batean teilatuak lau isurki zituen nahiz eta egun bi bakarrik dituen. Mendebaldeko eta ekialdekoa dira gaur egun fatxada nagusiak eta baserrian bi familia bizi dira.
- Hiru solairu eta ganbara ditu, harlangaitzez eraikia dago, eskantzuak eta baoguneak ezik, azken hauek kararriz eginak baitaude.
- Ekialdeko fatxadaren beheko solairuan bi sarrera daude. Biak, dobela zabalez eraikitako arku zorrotzak dira, ezkerreko arku haundiagoa izanik.
- Lehenengo solairuan dau den hiru leihoak tamainu eta ardatz ezberdinekoak dira eta ez dira



dorretxea eraiki zen garaikoak, askoz berriagoak baizik. Bigarren solairuan hiru pare leiho bizki zorrotz daude. Ganbararen parean harrizko modiloio lerro bat eta erdian gezi-leiho bat daude.

- Hegoaldeko fatxadako zatirik handiena ez da ikusten gaur egun, eraikin bat erantsita baitu. Honen gainetik ate angeluzuzen haundi bat dago, arku zorrotz batek babestua. Harlanduz inguratua dago, beste baogune guztiak bezala baina honako hau itsutua.
- Ateitsu honen atezangoek pieza bakarrek ataburu bat eusten dute eta honen erdian armari formako harlandu bat dago, noizbait etxearen armak lantzeko jarria izango zena. Gorago, berriz, modiloio lerroaren artean bi gezi-leiho daude.

PELLO ARRIETA

Gabriel Gabilondo

Tabernaria (1922-1969)



- 1922ko martxoaren 24an jaio zen.
- Gaztetan Haundian jokaten zuen. Urte askotan izan zen futbol jokalaria eta horietako urte batean Gipuzkoako Kopa ere eskuratu zuten.
- Lanbidez pasteleroa zen. Murua gozotegian egiten zuen lan.
- 1950an Justa Intxustirekin ezkondu eta Gabi taberna zabaldu zuen lehenago "Cafe Izeta" zegoen lekuan. "Gabi" izena Gabilondo abizenaren laburtzapenetik dator.
- Hasierako urteetan Murua gozotegiko eta tabernako lanak konpajinatu zituen, tabernan bertan ere gozotak egin eta saltzen zituztelarik.
- Tabernaren atzeko aldeko lokala, Errosario kalera ematen duena, Club Deportivoak erabili zuen urte askotan egoitza modura.
- Pertsona oso ezaguna zen, ez bakarrik taberna giroan, handik kanpo ere bai.
- 1969ko uztailaren 22an hil zen, ezkondu zen egun berdinean hain zuzen.

Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu BARRENEk sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.



MOTZAK

Fondoko eski ikastaroa otsailaren 3 eta 4an

Datorren hilaren 3 eta 4ko asteburuan, fondoko eski ikastaroa egiteko aukera izango da Morkaiko Mendizale Elkartearen eskutik. Belagoako pistetan izango da ikastaroa eta egoitza Belagoako aterpetxean. Lehen-bait-lehen izena eman Morkaikoren egoitzan ostiraletan arratsaldeko 7,30etatik aurrera.

Mendi travesia

Morkaiko Mendizale Elkartek mendi travesia antolatu du hilaren 28rako Goizuetatik Urrietara, Adarra-Leuneta mendikatean zehar. Izena emateko Morkaikoren egoitzatik pasa ostiral arratsaldetan. Irteera goizeko 7,30etan izango da Plaza Handitik.

Txirrindularitza ikastaroa

"Kirola Euskaraz" programaren barruan, Deba Beheko eta Garaiko Udalek Txirrindularitza zuzendaria titulua ateratzeko ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa Elgoibarren izango da, Kultur Etxean, otsailaren 9, 10, 16, 17 eta 23 eta 24an, hau da, ostiral arratsalde eta larunbat goiz eta arratsaldetan. Izen-ematea eta informazioa Elgoibarko Udal Kirol Zerbitzuan jaso daiteke edo 74 44 15 zenbakira deituta.



Aitor Bergua:

"Konpenetrauta gaudelako gera onak"

■ **Ez omen dago palan irabaziko dizuenik.** - Jende askok jokatzeko dau Elgoibarren palan baina egia da ez daola nibel oso haundirik.

■ **Bikoteka beti?** - Beti Jon Gurrutxagakin. Bi aldiz irabazi dogu Gabonetako txapelketa.


■ **Esku pilotan hasi zinen.** - Bai, txikitik pilota-eskolan ibili nitzen baina txarra nitzen eta laga ein naban. Gero, 14 urtekin palan hasi nitzen, eta ematen dabanez hobia naiz.

■ **Teknika aldetik pilota-eskolan ikasitakoak balio izan dizu?**

- Askok. Hankak nola jarri, piskat zabalik eta bata bestearen atzean; pilotari nola jo etab.

■ **Pala partiduak erraz irabazten dituzue?** - Ez, ze igual partidu batian relajatu eitzen zera eta gauzak zail jartzen diaz. Oso nerbiosua naiz etaegon izan gera ezin irabazita nerbiuengatik. Iazko Gabonetako txapelketan asko kostatu zitzaigun irabaztea problema horregatik. Azken aldian gehixoko kontrolatzen naiz.

■ **Atzelaria ala aurrelaria?** - Nik normalian atzian jokatzeko det eta Jonek aurreran. Atzeko jokalarixak indarra bihar dau batez ere, gerrixan eta sorbaldan. Eta aguantia ere bai. Aurrekuak erreflejuak bihar ditxu. Normalian nik eruatzen dot partidu batian pixua edo



erresponsabilidadia. Guk hola jokatzeko dou eta oso konpenetrauta gaude. Hori daukagu gure alde, maila haundia euki baino konpenetrautua daukagu ona.

■ **Pala konpetiziorik ba dago?**

- Deba Behen herrixetan eitzen diazen txapelketak urtero egoten dia, beti berdina. Beste modalitate ba-tzuetan, narruzko pilotan adibidez, Bilbon eoten da txapelketa bat profesionalena. Guk gomazko palatan jokatzeko dogu, eta aparte pala luzea eta motza daude. Gehixoko badaoz baina ezagunenak hoiek dia.

■ **Ordu asko ematen dituzue palan jokatzeko?** - Astian behin Ikastolan entrenamendu modura eta hortaz aparte, San Migelera edo Kiroldegira juten gera, libre dauanera.

■ **Teniseko pilotarekin edo gomazkoarekin jokatzeko aldia dago?** - Bai, gomazko oso arina da eta tenisekoa motelagoa.

Jokaldixak eixterakuan diferentzia dau. Jokaldi politxenak bi paretena eta txokuan lagatziana dia, neri gehixen gustatzen jatazenak.

• Adina: 21
• Palarik apurtu duzu? Askok, paretan kontra batez ere.
• Lesiorik inoiz? Ez, kalluak bakarrik.
• Hondartzan jokatzeko duzu? Orain ez. Gainera txarra da palentzat.

magu's
ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA
San Roke 6 behea tel. 74 34 91

UDAL **GERO ETA HURBILAGO**
EUSKALTEGIAK
"DEBABA" UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA
Nafarroa enparantza, 2
■ Matrikula epea: Urtarrilaren 22tik otsailaren 8ra.
■ Maila guztiak. LANGABETU ETA IKASLEENTZAT PREZIO BEREZIAK. Beka sistema.
■ Informa zaitetz 74 27 31 telefonora deituz.

Patxi eta Dalo,

Espainiako Oilagorren txapelkun geratu dira bigarren aldiz Patxi Arriola eta bere txakurra, Dalo. Leizaranen burutu zen txapelketa joan den sapatuan. Ehizatu ziren 15 oilagorren artean, lau Patxi hil zituen. "Hala ere, topau nitxun zazpi oilagorren artean bosti eman niuen tirua eta lau hil". Guztira 29 partehartzaile izan ziren eta Patxi nagusitasunez irabazi zuen, bigarren eta hirugarren sailkatuek bina oilagor harrapatu baitzituzten. Beste elgoibartar batek, Aitor Basuetak, parte hartu zuen txapelketan eta seigarren geratu zen.

95-96 denboraldia ezin hobea izan da Patxi-arentzat. Bera oso pozik dago eta ingurukoak harro. Honakoa, txapelketa zaila izan omen da. "Danek espero zaben nik titulua rebalidatzia, 'hori einda daok' eta holakuak esaten ziaten eta hori presio handia da. Gainera, irteeran, derrepente ehiztari mordua nere atzetik segika hasi zian nora juten nitzan ikusteko. Eta klaro, ezkerrera hartzia pentsauta banaukan, eskumara abiatu nitzan. Txakurra ondo heldu oilagorrek zaozen lekura alde ez eitzeko, kriston aldapa zaharrak estu ta larri ixo eta azkenian nahi nabian tokira heldu orduko despistau nitxun jarraitzaileak". Txapelketan geratutako beste anekdota bat ere kontatu digu Patxi: "ehiztari bakoitzak juez bat eruatzen dau eta honek



Goian, Espainiako txapelketaren ostean, Patxi podium-ean txapelarekin. Eskumako eta beheko argazkian, Jumillan, (Murtzia) Espainiako hirugarren geratu zen ehiza txikian. Oilagorretan Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapelketa da Patxi eta ehiza txikian, Euskadiko txapelketa eta Espainiako hirugarrena.

walki baten bidez harrapatzen diazen oilagorren berri eman bihar dau kontrolera. Nere juezan radixuari frekuentzia aldatu jakon eta txapelketia amaitxu arte jendiak ez zakixan zenbat hil nitxun. Ikustekuak zian hango nerbixuak!"

Telefonoaren menpe

"Txapelketa irabazi eta Maradona bezela sentitxu nitzan, argazkixak eta zorionak alde guztietatik, telebisuan ikusten dozun jende inportante guztixa zuri begira... demasa!" Txapelketaren ajeak igaro ondoren, errealitateari aurre egin behar orain. Ministro baten bulegoan beste dei jasotzen dira egu-

nean zehar Gelatxorrota baserrian. Patxi telefonotik zintzilik ematen du egun osoa. Dei guztiei erantzun ahal izateko, lana ere alde batera utzi behar izan du egun hauetan.

Irrati, telebista eta aldizkari ezberdinen eskerei erantzun, zorion mezuak jaso ... Espainiako txapelkun izateak apur bat estresantea dirudi. "Espainiako txapelketa izatiak ate asko irikitzen dizkizu. Rusiara juteko proposamen bat ere ein diate enpresa batetik, Volgan oilagorra harrapatzeko, asesore moduan edo".

Hobetzeko asmoz

Ikusitakoak ikusita,

irabaz daitekeen guztia irabazi duela pentsa liteke. 96-97 denboraldian, ordea, gogoz aritzeko asmoa duela adierazi digu. "Oilagorren txapelketa naizenez, ez daukat zertan Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan parte hartu. Ehiza txikixan ere semifinalian sartzen naiz automatikoki. Baina neri ehiza gustatzen jatanez, txapelketa lokaletik hasitxa, danetan pate hartuko dot". Aurtengo lorpenak berdintzeko "obligazioa" ei dauka Patxi, "oilagorren hirugarren txapela irabazi eta ahal bada, ehiza txikixan aurtengo hirugarren postua hobetu".

Futbola

Haundi 2 - Alaves 1
 Zumaiako 2 - Elgoibar 1 (1. erreg.)
 Martutene 1 - Elgoibar 1 (Jubenilak)
 Elgoibar 0 - Real Unión 2 (Kadeteak)
 Intxaurren 3 - Elgoibar 1 (Neskak)
 Elgoibar 2 - Tolosa 2 (Infantilak)

Areto Futbola

Elgoibar F.S. 0 - Cactus 4 (1. maila)
 Elgoibar F.S. 2 - Araba Etxea 3 (2. maila)

Eskubaloia

Pagoaga Elg. 26 - Mollari 10 (Kad. neskak)
 Elgoibar 41 - Aloña Mendi 23 (Kad. mut.)
 Bergara 21 - Elgoibar 18 (Jub. mutilak)
 Txankakua Elg. 23 - Ordizia 19 (Seniorrak)

Futbitoa

Oraiko Disko 4 - S. Karapola 1
 Karkis 5 - S. Pitxote 2
 P.S.K. 2 - Lucky Lucke 0
 Pedruskos 3 - Aterpe 1
 King Kong 6 - Berrogei Duro 1
 Orbela - Kosakos (atzeratua)

Saskibaloia

Industrias Lagunartea 76 - Txankakua 50

AGENDA

Futbola, Mintxetan

20, larunbata
 12,00 Elgoibar - S. Herrera (Kadeteak)
 16,30 Elgoibar - Antoniano (1. erreg.)
 21, igandea
 12,00 Beti Sutan - Antzuola (2. erreg.)

Eskubaloia, Kiroldegian

21, igandea
 12,00 Elgoibar - Ordizia (Jub. mut)

Futbitoa, Urasandin

21, igandea (Arbitraia: Oraiko Disko)
 10,00 Sanroketarra - S. Braga
 Karkis - Aterpe
 11,00 Ikus Optika - Rebel Urbi
 Kosakos - Uda Berri
 12,00 Aldavas - Roke
 Orbela - Ametsa

Pilota, Ikastolan

19, ostirala
 22,00 San Anton Pilota txapelketa
 (finalak)

Saskibaloia, Kiroldegian

20, larunbata
 19,00 Txankakua - Alde zaharra

SAN ANTON V. PILOTA TXAPELKETA

Gaur, ostirala, maila handiko finalak jokatuko dira Ikastolan

Lehen mailako afizionatuetan, pilotaririk onenak aurrez aurre izango dira Ikastolako frontoian gaur, hilak 19, gaueko 22,00etatik aurrera jokatuko diren finaletan. Partiduen ostean sari banaketa ekitaldia izango da. Pilotarien aparteko maila ikusita, partiduen interesgarriak izan daitezke gaur gauean Ikastolako frontoian jokatuko direnak.

Finalerdietako emaitzak

Maila handiko pilotariek, afizionatuen mailan puntakoenek hartu dute parte urtarrilaren 5ean

hasi zen txapelketan. Errioxa, Nafarroa eta Burgos aldeko pilotariak dira, eskuzko binakako eta banakako kategoriakoak. Joan den astean bigarren eta azken finalerdia jokatuko ziren honako emaitza hauekin: jubeniletan Saralegi eta Goitia bikoteak 19 eta 22 galdu zuen Ubeda eta Otxandorenaren aurrean. Lau terdiko promesetan, banakako kategorian, Muruamendiarazek 18 eta 11 irabazi zion Matxaini eta seniorretan, Olaizola eta Okiñena 22 eta 12 nagusitu ziren Barberito eta Rai-ren aurrean.



■ ■ Pasa den astean bigarren finalerdia jokatuko ziren. Finalak, gaur, hilak 19, jokatuko dira.

FINALA (Urtarrilaren 19ko jardunaldia)

Ikastolako frontoian, gaueko 22,00etan

■ Jubenilak:

Ubera II/Otxandorena - Olaizola II/Errandonea

■ 4 1/2ko promesak:

Muruamendiaraz - Larraia

■ Seniorrak:

Olaizola/Okiñena - Goñi/Apeztegia

INAKI PEREZ ARMENDIA

"Ipuina perfekzioa da"

Iñaki Pérez Armendiak Debako *Tene Mujika* eta Zumaia-ko *Julene Azpeitia* lehiaketetako bigarren sariak irabazi ditu. 15 eta 16 urterekin idatzitako poesietatik gaur eguneko ipuinak arte hitz asko idatzi ditu. Liburu bat argitaratzekotan dago, *La piel del tiempo*, "gastuak nire poltsikotik ordainduta", eta ipuin bilduma bat egin nahi du, "bi herrialderen arteko mugan gertatzen diren kontakizunekin".

- **Lehen sariak noiz?** - Aurtun. Bi erderaz idatzitako ipuinekin, bat Segovian eta bestia Ermuan eta euskeraz, "Saguaro artean" ipuinak bi sari irabazi ditu, Zumaia-ko eta Debako bigarrenak.

- **Zer esan nahi du izenburuak?** - Saguaroak Mexikoko basamortuan hazten diren kaktusak dira. Ipuinean kaktus hoiek daozen parajietan gertatzen dan istorio bat kontatzen det. Sonorako Nogales herrian; Mexiko eta Iparramerikako frontieran. Badakatz asmua bilduma moduko bat egiteko frontera ezberdinetan gertatutako istorioekin, Mexikon, Marruekoen, Espainian eta Frantzia, Portugalen....

- **Gaztelaniaz eta euskaraz berdin idazten duzu?** - Erreztasun gehixo dakat erderaz, beti ein izan dotelako erderaz. Lan gehixena, %80a edo, erderaz idatzita daukat baina azken aldixan euskeraz idatzi ditzut batzuk, saiakera bezela.

- **Lehen lanak gogoan dituzu?** - Bai, poesiak ziren, ikasle nitzanian 14 urtekin. Urtiak pasauta eta asko irakurritxa, 22 edo 23 urtekin ipuinak idazten hasi nitzan, serixo esan leike.

- **Adin horrekin idatzitako poesiak errebeldeak izan beharko,**



- **Adina:** 42 urte
- **Lanbidea:** Fisika eta matematika irakaslea Armeria eskolan.
- **Ipuin bat?** Kortazarrenak, denak.
- **Idazle bat?** Becket, lehen batez ere. Ribeiro ere bai, eta ezezagun asko eta asko: Manuel Francisco Rodriguez etab...
- **Paperean ala ordenagailuan?** Azken hilabetean ordenagailuan baina ordura arte idazmakina elektrikoan.
- **Irakurri ezinik utzi duzun liburu bat?** Askok.
- **Zein liburu mota ez zenuke sekula irakurriko?** Ezin ditut jasan abokatuei buruzkoak.
- **Zertarako ez zenuke erabiliko liburu bat?** Erren dagoen mahai baten hanka azpian jartzeko.

ez? - Bueno, badakizu, Machado eta jende horrek beti lagatzen dizu markia. "Campos de Castilla" eta holakuak irakurritxa, galdetzen diozu zure buruari, eta nik zergatik ezin dot holakorik ein, ez?

- **Hitzetik hasten zara sortzen?** Neri hitz bat edo bi etortzen jataz burura, edo esaldi bat, marrazki bat bezela. Nik bide hori jarraitzen dot eta nonbaitera helitzen naiz.

- **Aldean eramaten dituzu lapitza eta papera?** - Ez, hasi nitzan behin gauzak apuntatzen baina ez. Buruan apuntatzen ditzut gauzak.

- **Derrigorrezkoa da sari bat irabaztea ezagutzera emateko?** - Modu bat da bai. Bestela, nik ein doten bezela, poltsikotik dirua jarri eta liburu argitaratu. "La piel del tiempo" izena jarri diot, 18 ipuin erderaz eta 4 euskeraz. Baina bestela sariak irabazi bihar, "Imajina Euskadi", "Tene Mujika", Donostia-ko edo Irungo lehiaketak oso inportantiak diaz. Gainera Elkar-ek Tene Mujikako ipuinak argitaratu eingo ditxu eta hori garrantzitsua da.

- **Badirudi nobela bat idatzi arte, idazlea ez dela benetako idazle.** - Cortazar-ek esaten zuen bezela "ipuina artefakto perfektoa" da. Ipuinaren mundua murrizta da, perfekzioa eskatzen dau. Ipuin bat idazten ez dakien idazlea... Nobelian, berriz, kapitulu bat ona izan leike eta beste bat eskasaua. Estilo ejerzizio bat da nobelia, amaigabeko produkzioa. Ipuin bat irakurri ondoren zeozer ikasten dot beti, baina oingo nobela famoso hauek ez diate ezer berririk aportatzen hizkuntza aldetik, kontsumorako produktuak dia.

EIBAR HIRIA ipuin lehiaketa Elgoibarrera etorri da

Joan den larunbatean izan zen Eibar Hiria ipuin lehiaketako sari banaketa. Irabazleen artean bi elgoibartar daude. Iñigo Otañok 18 eta 25 urte bitartekoen artean, euskarazko lanen lehen saria eskuratu du eta Monika

Fernandez-ek, 14 eta 17 urte bitartekoen artean, bigarren saria jaso du gaztelera. Badirudi, aspaldian herrian baditugula etorkizunean idazle handiak izan daitezkeen hainbat gazte.



Iñigo Otaño

Iñigok 20 urte ditu eta injinerutza industrialara ikasten ari da. Eibar Hiriko lehen saria irabazi du 18 eta 25 urteko gazteen artean. Bere lanak "Ibilbide hurbileko tren" izena du eta trenbidera erori eta gero oroimena galtzen duen gizon baten historiari buruzkoa da. Iñigok 40.000 pta. jaso ditu baina bere hitzetan, "pena eman dit txapel edo oroigarriren bat ez jasotzeak. Dirua lehenago edo beranduago



asko eskatzen du eta nahiago det afizio bezela mantentzia". 15 ipuin inguru idatzi dituen mutil honi idazle sentitzen den galdetzean, "idaztia gustatzen jata. Hori idazle izatea bada, bai" erantzun digu.

Monica Fernandez

"Siempre conmigo" izenburupean, gazte baten eta bere potxokarren arteko harremana kontatzen du Monikak saritua izan den ipuinean. Esan digunez, amaren kontakizun batean oinarritu zen bere istorioa garatzeko, izan ere, "nire ama herri txiki batekoa da eta berak sarri kontatzen zizkidan behie, astoei eta bestelako animaliei buruzko gauzak". Lehenengo aldia da 16 urteko neska honek lehiaketa batean parte hartzen duela, "lehenago beste ipuin batzuk ere idatzi izan ditut baina denek zakarrontzian bukatu izan dute". Shakespeareren liburuak oso gustuko ditu Monikak eta hura bezain ona izatea zaila den arren, bere ilusioa egunen batean liburu bat argitaratzea da. Boligrafo urdinez idazteko ohitura du eta, beste askok bezala, "gauz, etxean isiltasuna nagusitzen denean". Garrantzitsuena, "epaimahai batek nire lana ona dela esatea izan da". Nolanahi ere, badaki idazle izatea ez dela batere gauza erraza. Berak, medikuntza ikasi nahi du. Irabazitako dirua zertan gastatuko duen ez du pentsatu, "baina lagun guztiek esan didate larunbat arratsaldean gonbidatu egin behar ditudala, beraz...".

gastatu egingo da. Orogarriak denboran irauten du". Orain urtebete inguru bere lehen ipuin lehiaketa irabazi zuen. Orduko hura, Ikaspeletak antolatuta, pilotari buruzko kontakizun bat zen, "eman zidaten frontoi itxurako oroigarria nire gelan daukat". Iluntze aldera idazteko ohitura dauka, "eskuz eta folio tako haundi baten gainean". Umetan hasi bazen ere, "serioago BBBn hasi nintzen" baina, hala ere ez du bere etorkizuna idazle profesional bezala ikusten, "zaila da, dedikazio

Salerosketak

RETROPROIEKTORE bat eta "Le sana frontieré" frantseseko LIBURUA erosi nahi ditut.
☎ 74 04 59

OSPITALEKO OHE BAT saltzen dut: manibeladuna, koltxoi FLEX eta mesillarekin.
☎ 7422 21

ESKIAK SALGAI. Dynastar 1,85 m. Tyrolia loturak. Egoera onean. Nordica bota onak (41-42)
☎ 74 18 55 (gauean)

Suzuki Savage MOTORRA salgai. 2000 km. 650 cc.
☎ 74 02 24 / (908) 77 59 33

ZIBRO KAMIN markako estufa bat saltzen dut. Berria.
☎ 19 16 39

DERBI 75 C.C. trukatua salgai. Egoera oso onean.
☎ 15 04 41

Etxebizitzak

Mendaron ETXEBIZITZA BAT SALGAI. Buztinalde plazan. Amueblatua.
☎ 77 05 90 Angel Mari

Pisu bat KONPARTITU nahi nuke Elgoibarren.
☎ 74 14 96 Izaskun

BUHARDILA BAT saltzen da Eibarren. Erreformatua. Prezio interesgarria.
☎ 10 76 09 Fernan

ETXE BAT SALTZEN DA Errosario kalean.
☎ 74 37 68

ETXE BAT SALTZEN da DEBAn. Amueblatua. Hondartzatik gertu.
☎ 74 22 83

SANTA KLARAN PISU BAT SALTZEN dut. 24. zenbakia 5B.
☎ 74 32 98

Lana

Emakume helduak ETXEKO LANAK EGIN EDO PERTSONA NAGUSIAK zainduko lituzke.
☎ 74 32 51 Pili

TITULUDUN ERIZAINA, etxeetarako erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.
☎ 74 02 33 Marta Diego (Erizain diplomatua)

EDERGINTZAN LAN EGITEKO prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 74 29 56 Gema

Garajeak

GARAJE BAT SALTZEN dut pista beltz azpian, marraduna.
☎ 74 39 19

Garaje bat alokatu edo erosi nahi dut HERRI ERDIAN.
☎ 74 15 73

Garaje ITXI BAT SALTZEN da Arregitorren.
☎ 74 30 81

Garaje bat ALOKAIRUAN HARTUKO NUKE.
☎ 74 23 01 Igone

Garaje bat ALOKATZEN DUT, marraduna, San Roken, Aterpe taberna azpian.
☎ 74 30 33

GARAJE ITXI BAT salgai Santa Ana 46an.
☎ 58 40 24
Gauzez deitzea hobe

GARAJE ITXI BAT saltzen da King-Kong-en.
☎ 74 06 22

Bestelakoak

IKASLE IPAR AMERIKARRAK HARTZEKO prest dauden familiekin harremanetan jarri nahi dugu, uda edo urtebete igarotzeko.
☎ 74 15 14 Maite

WELCOME ingeles ikastaroak, BBB eta UBI EEBBetan eta Ingalaterran. Au-pair EEBBetan.
☎ 74 15 14 Maite

Karitasek BI OHE DAUZKA behar dituenari emateko.
☎ 74 15 09

Partikularrak

Injinerutza eta magisteritza tituludunak KLASE PARTIKULARRAK ematen ditu.
☎ 74 01 48 Alazne

MARRAZKETA LINEAL ETA DIEDRIKOKO klaseak ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

Atal honetako iragarkiak DOHAINIK dira. Zerbat saldu edo erosi, alokatu, eskatu edo eman nahi baduzu telefonoz egin dezakezu.

74 41 12
zenbakira deituz.

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikirolegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola.....74 21 41
Herri Eskola74 08 79
I.M.H.74 41 32
Instituta74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 27 59
El Correo Español...74 10 82
Egin.....10 84 21
Zazpiki74 34 74

19 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Homicidio en primer grado”

20 LARUNBATA

11,00 SAN BIXENTE EGUNEKO MEZA

✓ San Rokeko ermitan

11,30 ZAZPIKI IRRATI KO BATZARRA

✓ Zazpikiren lokalean

19,30-22,15 ZINEA

“Homicidio en primer grado”

20,00 BOLO TXAPELKETA

✓ San Rokeko bolatokian

21 IGANDEA

16,30 ZINEA

“Angeles”

19,30-22,15 ZINEA

“Homicidio en primer grado”

22 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Homicidio en primer grado”

23 ASTEARTEA

19,00 ZINEA GURASOENTZAT

“Historias del Kronen”

✓ Herriko Antzokian

22,00 ZINEA

“Homicidio en primer grado”

26 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Los puentes de Madison”

22,00 DIAPOSITIBA EMNALDIA

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Morkaiko Mendizale Elkartea

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
20, larunbata:	Ormazabal	Escala
21, igandea:	Ormazabal	Escala
22, astelehena:	Etxeberria	Etxeberria
23, asteartea:	Etxeberria	Etxeberria
24, asteazkena:	Etxeberria	Etxeberria
25, osteguna:	Etxeberria	Etxeberria
26, ostirala:	Etxeberria	Etxeberria

OKINDEGIA:

21, igandea: ZABALETA

ZineA

Homicidio en primer grado

Zuzendaria: Marc Rocco

Antzezleak: Christian Slater, Kevin Bacon, Gary Oldman

Alcatraz gartzelaren itxiera markatzen duen kasua kontatzen du pelikulak. Hiru urtez Alcatraz-en inkomunikatua egon eta gero, Henri Young-ek, bere onetik erabat aterata, jangelan ikusten du bere gaitzen erruduna. Goilara bat hartuta, lepoan sartu eta hil egingo du. Lehen graduko hilketagatiko salaketapean epaiketari aurre egin beharko dio presoak.



Angeles


Zuzendaria: William Dear

Antzezleak: Danny Glover, Brenda Fricker, Tony Danza.

Disney etxearen produkzio hau akzioz eta fantasiaz beterik dago.

Umezurtz batek hilda dauden senideekin berriro elkartzea nahi du

baina ezinezkoa da aingeruen laguntzarik gabe. Beisbol taldeko ekipa batek ere aingeruen launtza behar du sailkapeneko azken postutik lehenengora iristeko. Baina mirariak nonbait existitzen dira.





Ordutegi berria

Irteerak ELGOIBARtik

ELGOIBAR-BILBO		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
7,45	7,45	
8,45	8,45	8,45
		9,45
14,30	14,30	14,30
17,45	17,45	
		18,05
		19,45

ELGOIBAR-ONDARROA (Deba eta Mutriku)		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
11,30	11,30	11,30
13,30	13,30	
16,30		
18,30	18,30	
20,30	20,30	20,30
		22,55

ELGOIBAR-DONOSTIA		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
8,45	8,45	
8,55	8,55	
		9,45
		10,25
10,45	10,45	
13,45	13,45	13,45
13,55	13,55	
14,55	14,55	
15,15		
18,45	18,45	18,45
19,55	19,55	19,55
20,45	---	20,45

ELGOIBAR-AZPEITIA (Azkoitia)		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
12,30		10,30
	13,30	13,30
15,30		
22,00	22,00	22,00

ELGOIBAR-ARRASATE (Bergara)		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
8,40	8,40	
13,00	13,00	
15,30	15,30	
18,30	18,30	18,30
20,00	20,00	
21,15	21,15	21,15

ELGOIBAR-GASTEIZ		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
8,40	8,40	
18,30	18,30	18,30

Irteerak ELGOIBARera

BILBO-ELGOIBAR		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
	9,30	
10,30	10,30	10,30
11,30		
12,30	12,30	12,30
14,00		
14,30		
15,30		
17,30	17,30	
19,30	19,30	19,30
21,00	21,00	21,00
		22,00

ONDARROA-ELGOIBAR (Mutriku eta Deba)		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
7,15	7,15	
8,15	8,15	8,15
	9,15	
14,00	14,00	14,00
17,15	17,15	
		19,15

DONOSTIA-ELGOIBAR		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
7,30		
8,15	8,15	
9,30		
12,30	12,30	12,30
14,00		
15,00	15,00	
17,30	17,30	17,30
18,00	18,00	18,00
19,30	19,30	19,30
20,45	20,45	20,45

BERGARA-ELGOIBAR		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
7,35	7,35	
8,35	8,35	
		10,05
13,35	13,35	
14,35	14,35	
19,35	19,35	19,35

GASTEIZ-ELGOIBAR		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
6,30	6,30	
		9,00
12,30	12,30	
18,30	18,30	18,30

ARRASATE-ELGOIBAR (Bergara)		
Lan egunak	Larun-batak	Jai egunak
7,20	7,20	
8,20	8,20	
		9,50
13,20	13,20	
14,20	14,20	
19,20	19,20	19,20

INFORMAZIORAKO: 902 10 12 10